

BEETHOVENEN EUROPA

ESKOZIA

SUEDIA

ERRUSIA

DANIMARKA

IRLANDA

GALES

ALEMANIA

POLONIA

INGALATERRA

UKRAINA

TIROL

AUSTRIA

HUNGARIA

SUITZA

FRANTZIA

ITALIA

ESPAINIA

PORTUGAL

Entzun
Europaren
doinua!




EL VIAJE DE LUDI



elviajedeludi.com

Eraman zaitzake musikak Europan barrena pasieran?

Zatoz Beethovenekin eta bere lagunekin musika-bidaia honetara, eta ikusiko duzu.



LUDWIG VAN BEETHOVEN
KONPOSITOREA


Ziur aski, badakizkizu zenbait gauza **Ludwig van Beethoveni** buruz, inoizko konpositore onenetakoa bera. Bonn hiri alemaniarrean jaio zen, 1770ean, eta Vianan hil, Austria-Hungariako Inperioa izandako egungo Austriako hiriburuan, 1827an. Musika-pieza mordo konposatu zuen, bederatzia sinfonia, besteak beste; horietako batzuen doinuak oso ezagunak dituzu, bosgarrenaren lehen lau notak, adibidez, edo «**Alaitasunaren oda**» ospetsua, bederatzigarrenaren amaieran dagoena eta Europar Batasuneko himno bihurtu dena. Izan ere, Beethovenen musika gizadiaren kultur ondarearen parte da, Atenasko Partenoiak, Egiptoko Piramidea edo On Kixote Mantxakoa bezalaxe.

Baina, beharbada, ez dakizu Beethoven oso gazterik geratu zela gor. Bai, bai, ondo irakurri duzu: gor. Ez zuen entzuten konposatzen zuena. Hori dela eta, batzuetan oso atsekabeterik egoten zen, eta ez zuen gustuko beste pertsona batzuekin egotea, zer esaten zuten entzun ezin zuenez oso gaizki sentitzen zelako. Hala ere, orkestrarako eta koruetarako obra pila bat sortzeko gai izan zen; hau da, hark sorturiko piezetan, instrumentu bakoitzak gauza bat jotzen du, desberdinak denak. Txundigarria, ezta? Nola lortu zuen? Bada, oso erraza da: **jenioa zelako izan zen kapaz, gorra izan arren, inoizko musikarik onena konposatzeko, eta jenioek aise egiten dute gehienontzat ezinezkoa dena.**

Beethovenek ez zuen oso gogoko bidaiatzea, gorreria ez ezik, beste osasun-arazo batzuk ere bazituelako. Gainera, garai hartan, jendeak ez zuen asko bidaiatzen: ez zegoen trenik, autobusik, hegazkinik... Bidaiak norik bere diligentzian edo zalgurdian egiten zituen, eta oso luzeak eta deserosoak izaten ziren. Hortaz, garaioko beste artista batzuk ez bezala, Goethe eta Schiller idazleak, kasu, Beethoven sekula ez zen joan Greziara eta Italiara, orduan bolada betean ziren herrialdeetara, hain zuzen.

Eta badakizu zergatik zeuden hain modan, batez ere Europako iparraldeko bidaiarien artean? Ez eguzkitsuak zirelako, garai hartan inork ez baitzuen hondartza batean beltzaran jarri edo beroa jasan nahi. **Grezia eta Italia, zoragarriak izateaz gain, kultur europarraren jatorria zirelako eta direlako ziren helmugarik gogokoena.** Seguru ezagutzen dituzula Greziako jainkoiei eta Erromako enperadoreei buruzko istorioak, eta seguru badakizula, halaber, Europako hizkuntzetan erabiltzen ditugun hitz ugari grezieratik eta latinetik datoze.

Gure Ludwig maiteak, ordea, inoiz ez zuen bisitatu Europako hegoaldea; Erdialdeko eremua ezagutu zuen zertxobait, baina ez askoz gehiago. Hala ere, **haren ospeak mugak gainditu zituen, eta Europako bazter urrunetara iritsi zen; esate baterako, Eskoziara, non gizon oso interesgarri bat erabat zeharo liluratuta geratu zen konpositorearen obrarekin. **George Thomson** zuen izena (1757-1851), eta editorea zen, baita, batez ere, abesti-bildumagilea ere.**



GEORGE THOMSON
ABESTI-BILDUMAGILEA



Bai, bai, hori ere ondo irakurri duzu: abestiak bildu eta koaderno batean idazten zituen. **Halaxe ibili zen Britainiar Uharteetako herrietan zehar, kanta herriko zaharrak biltzen, mundu moderno heltzeaz batera betiko desagertuko ziren beldurrez.** Mundu moderno, orduan, lantegiak eta hiri handiak ziren; jakina, ez zegoen Internetik, ezta telefonorik, zinemarik edo telesailik ere, baina Thomsonek bazekien mundua oso azkar aldatzen ari zela eta antzinako doinuak gorde egin behar zirela, ez desagertzeko. Horrenbestez, Beethovenen berri bazuen ez eta haren musika ongi ezagutzen zuenez, gutuna idatzi eta jasota zituen doinu herrikoiei eta Europako hainbat tokitatik bidali zizkieten beste batzuei moldaketak egiteko eskatu zion.

Thomsonek eta Beethovenek urte askoan idatzi zizkieten gutunak elkarri, partiturak erantsita, eta batzuetan hilabeteak pasatzen ziren etxean jasotzen zituzten arte. Izan ere, garai hartan, eskutitzak ere zaldiek arrastaturiko diligentzietan garraiatzen ziren, eta bidelapurrek eta gerrek izugarri zailtzen zuten posta. Cogoratu ez zegoela posta elektronikorik!

Horrexegatik dugu esku artean, postarien eta garraiolarien lanari, George Thomsonen temari eta Beethoven jenoari esker, hain zuzen, **lieder bilduma hau, hots, Europa zaharreko istorioak, kondairak eta usadioak jasotzen dituzten abestiak.**

Kantak hainbat hizkuntzatan daude: frantsesa, italiara, portugaleria, ingelesa, alemana, gaztelania, errusiera, suediera, galesa... Badakizu zergatik? Europan, hainbat kultura elkartzen zirelako eta direlako, hainbat arraza, hainbat tradizio, antzina-antzinatik iritsi zaizkigunak. Gogoan dituzu Ulisesen abenturak? Akilisenak? Bikingoanak? Zeltanak? Julio Zesarrenak? Bada, horiek guztiak eta beste asko egun Europa izena duen lurraldean bizi izan ziren, zapaltzen dugun lurralde honetan. **Guk arnasten dugun aire bera arnastu zuten haiek guztiak, eta aire horrek berak ibili zituen hara eta hona Thomsonek jaso eta Beethovenek moldatu zituzten doinuak, guk hainbeste urteren ondoren entzun eta gozatu ahal izateko.**

Aireak dakarkigu musika hori, belarrietatik sartu, garunean geratu eta gure oroimenean bizi dena. Ludwig van Beethovenek buruan zuen musika guztia, eta, belarriekin entzun ezin bazuen ere, oroimenean eta airman entzuten zuen, desira guztiak biltzen diren lekuan, hain zuzen. Hortxe dago, era berean, jenioek gu guztiontzat sor dezaketen edertasunaren magia, betiko gozatu ahal izango duguna. **Hau zortea gurea!**

Ana Alcolea



BEETHOVENEN EUROPA
musika-mapa

